



## Jai giroak ez du etenik Alegiako Karmenetan

**EKITALDIAK** ▶ Sagardo eta txakolin dastaketa eta zahagiardo bateratuarekin egarria asetzeko aukera izan zen; Izeta II.ak irabazi zuen I. Txintzarri Saria ▶ 5



Goian, plaza gainezka sagardo eta txakolin dastaketan; beheko irudian, Izeta II.a, lanean. I. GARCIA



**Jose Jabier Mujika gogoan izan dute UPNko kideek**

**LEITZA** ▶ «Aldi berean nafarra, euskalduna eta espainiarra izateagatik» hil zuela ETAK adierazi zuen Miguel Sanzek ekitaldian ▶ 4

**TOLOSALDEA** ▶

**Hirigintza orekatua hizpide Ernioaldearen diagnostikoan** ▶ 6-7



## IRUDIETAN ▶

Tranpazulorekin  
batera gora egin  
dute festek

IMANOL GARCIA

Santamañako baselizaren inguruan lau egunez festa giroa nagusituko da. Ohitura denez, Tranpazulo igo zuten baselizaren teilaturaino eta berriro jaitziko dute asteartean, Santamaña egunean festak amaitzen direnean. Haurrak, txupinazotan parte hartu ondoren, jolasean aritu ziren. Dibertigarrienetakoa oliben jokoak izan zen. Esne-gain artean aurkitu behar zituzten ahoa bakarrik erabiliz eta gero taldekide bati pasatu eskurik erabili gabe. Barrre ugari egin zuten parte-hartzaileek eta baita ikusleek ere.



Kanpakiak joz batera igo zuten Tranpazulo. i. g.



Txanpaina botila ireki zuten eta Tranpazulori ere eskaini zioten. i. g.

## TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zein leku  
proposatuko  
zenuke  
oporretarako?  
Zergatik?

Italia. Eguraldiagatik, eta ikus-teko dagoen guztiagatik merezti du.

▶ -

Nik Menorca edo Lanzarote gomendatuko nizkizuke. Oso politik izateaz gainera, oso ondo pasatzeko aukera dagoelako.

▶ MAIDER PERALES ARIZAGA

Motxila hartu eta edonora joatea. Jende guztiak hartzen ditu bidaia agentzia batean. Gero hoteletik hotelera ibiltzen dira, bidaia batek ematen dituen zirrarak jaso gabe. Bidaiatzea esperientzia berriak bizitzea da, eta ez argazkiak ateratzea betiko leku turistikoetan.

MOTXILEROA ▶ HARTU MOTXILA  
ETA IBILI MUNDUAN

Gu iaz Norvegiara joan ginen, eta txundituta bueltatu ginen. Denoi gomendatuko nizukek hara joatea, izugarria da. Oso oso ederra, natura aldetik batez ere. Ur jauziak edozein lekutan, fiordo zoragarriak, ur ertzean sekulako mendi puskak, herrixka politik, hiri atseginak... Gainera, jendea oso jatorra eta abegitsua da, eta ez dago arriskurik. Lasai utzi autoa eta kanpina irekita, inorrek ez dizu ezer lapurtuko eta! Ez dakit ohiturak diren, edo kultura... Herri lasaia da, eta seguru sentitzen zara. Ingelesa perfektu hitz egiten dute, eta ondo komunikatuta dago guztia. Ez ahaztu Bergen bisitatzea, eta fiordoak ikustea. Hori bai, lurralde garestia da, baina ez da hain garesti ateratzen kanpinitik kanpinera ibilita eta bakoitzak jana prestatzen badu, supermerkatuetan-eta erosita. Fresko egiten zuen joan den abuztuan, eta horregatik komeni da berokiren bat eramatea. Eta argazki kamara bat, bestela damutuko zara eta!

IGOR ▶ NORVEGIA

Tunisia. Ez naiz behin ere egon, baina distantzia gutxira dago, eta oso kultura desberdina da hangoa. Gainera, merkea da, eta urtean zeharreko edozein hilabetetan joan zaitezke, eguraldia on samarra delako beti. Dromedarioak, ogi gozoa, zokoak, paisaia ederrak, basamortua...

LIERNI ▶ NIK TUNISIA

Ni Euskal Herrian bertan geratuko nintzateke, hemen oso txoko politik baititugu. Gainera, beti kanpora jotzen dugu, eta azkenean gureak ez ditugu ezagutzen. Ekonomikoki, berri, zer esanik ez, bidaiatzea oso garestia da, eta hemen inguruan geratuz gero ez da horrenbeste gastatzen.

▶ -

Egiptora joatea izan da beti nire ametsa. Zein da garairik onena hara joateko? Bidaia antolatua aukeratzea al da onena? Edo norbera bere kabuz dena antolatzea? Zein agentzia bidez-edo egingo zenukete? Edo Internetez? Zer leku dira

ezinbesteko bisitatzeke? Oporraldi hauetan hemen inguruan geratuko naiz, baina hurrengo baterako gustatuko litzaidake horrelakorik planifikatzea. Egiptora joan den baten batek erantzun nahi badu, asko eskertuko nioke. Ondo pasa oporrak!

MIREN ▶ EGIPTORA?

Benidorm! Benidorm! Juerga galantak botatzen dira han! Eta euskal giroan! Neska ederrak daude, gainera! Ligatzeko eta ondo pasatzeko leku aproposala!

▶ -

Andaluzia oso polita da, kultura desberdin bat ezagutzeko aukera ematen du, eta hori aberatsa da. Gainera, poteoa egin eta afaltzea, biak bat! Ez hemengo pintxo garestiak bezala... Xelebreak dira andaluziarrak, baina onak. Granada gustatu zitzaidan niri asko, eta Cadiz ingurua ere ederra dela diote. Hori bai, bero handiegia agian udan...

▶ ANDALUZIA

Ni edozein lekutara joango nitzake oporretan egotearren, mendia, hondartza, lasaitasuna, mugimendua, Iparraldea, Galizia, Txina, Eskozia... edozein lekutan dago disfrutatzeke aukera prest bazaude, gogo latza ari zait jartzen oraintxe bidaiatzeko. Noski, Benidormeko astakirekin ez topatzeagatik ere edozer!

ONDO PASATZERA! ▶ UTOPIA

Proposatuz ez dakit, aurrekoak esaten duen bezala edozein leku iruditzen zait ona oporretan bazaude. Eta gauza bat gehituko nioke: konpainia onen bazaude; beno, bakarrik joan nahi ez baduzu behintzat, batzutan ona da-eta bakarrik bidaiatzea, asko ikasten da! Hala ere, leku batzuk badituzte nik buruan, bizitzan noizbat hara joatea gustatuko litzaidakeenak: Patagonia, Egipto, Australia, Bora Bora... Dirua eta denbora behar, ordea! Aurten Euskal Herrian. Eta ez naiz batere kezaketen! Hemen ere paraje ederrak daudela!

▶ AMETSAK

## hilberria ▶



## Angelita Arandia Tolosa

andrea



Zure bilobak: Maite eta Juan Luis, Mikel eta Elena, Joseba, Aitor eta Ana, Asier, Lierni eta Iñigo, Alain eta Maria, Eider eta Joxe Manuel, Egoitz eta Leire, Oroitz, Olatz eta Eñaut, Ainara eta Luis, Gotzone eta Alberto, Iñaki eta Igone, Aritz eta Patrizia, Maider, Unai eta Alaitz, Naiara eta Jokin eta Iurgi.  
Zure birlobak: Naroa, Oihane, Aiora, Iraitz, Ugaitz, Oier, Naia eta Estanix.

Amona, matte zattu

UGARTE-AMEZKETAN, 2006ko uztailaren 16an

## hilberria ▶




## Angelita Arandia Tolosa

andrea



Ugarteko elkartearen zurekin igarotako une goxoak beti gogoan izango ditugu.

UGARTEN, 2006ko uztailaren 16an



Haurrek, jolasak hasi aurretik, ikusi ahal izan zituzten bukaeran jasoko zituzten sariak. i. e.



Harri-jasotzearen proba izan zen politenetakoa. i. e.

UZTURRETIK ▶ AGUSTIN AMIANO

## Adarrik gabeko ahariak



**P**auso batzuk atzera egin, aurrekoari desafio aurpegiz begiratu, burua zertxobait makurtu eta ekin. Ziztu bizian ekin, gainera, aurkariaren bularrean talka egin arte. Aterioa lurrean etzan-

da geratuko da, minduta, edo kolpeari etekina atera zain, agian.

Urtetako esperientziak ez dira alferrik pasatu! Adarrik gabe ekin dio, gainera, aurrean zegoenari, ez adar eta ez ile, momentuko beroaldian itsututa. Txartel gorria eta laino beltza; orain ere burua makurtu du, baina ez talka egiteko, lotsa eta damua gertuko iraganean irauli nahian baizik.

Bular gehienak horma dira gure inguruan. Eta gure kopetek ez dute behar be-

zalako sendotasunik. Bi aukera ditugu honen aurrean: adarrez hornitzea, eta esanahiak berak ez du pauso hau ematera gonbidatzen, nahiz eta sanferminak pasa berriak izan; edota ondo pentsatu berriro talka egin aurretik.

Adarrik gabeko ahari batentzat, larre gozoa eta otordu luzea hobe, hitzordu puntuala eta hirusta ugaria nahiago.

Adarrik gabeko herri batentzat atzerakako pausorik ez, ezta burua makurtzerik ere. Burua tente eta pausoak

aurrera, nahiz eta oso pauso txikiak izan.

Bada hemen ere esperientzia franko duenik, desafioak maiz hausnartu dituenik, talka egin duenik ere. Jakitun direnen esperientzia eskatu behar dugu, txartel gorria jaso aurretik. Horma sendoak izango ditugu berriz ere aurrez aurre, punta zorrotzak dituzten harresi maltzurak agian, non eta nola min egin dakitenak, hitzez eta ekintzez. Barkamena eskatzea ez da seinale ona, damuaz begiak lurrerantz zuzentzea ezta ere. Kirolari onenak behar ditugu, baina guztiok ureztatutako belardian.

ESANAK ▶

XABIER USABIAGA

TXIRRINDULARI OHIA ETA ESATARIA

«Parte hartu izan balute, Ullrich eta Basso beste guztien gainetik leudeke. Orekarik handiena biek dute. Tourrak beti saritzen du gabezia gutxien duena»

«Dopinarekin amaitzea ezinezkoa da. Kirola

bezain zaharra da, hark duen arazo bat da. Baina, berez, gizakiaren jokabidean dagoen arazoa da. Giza lege txarra, borondate txarra eta engainua gizakiak larruan atxikita daraman jokabidea da»

«Euskaltelen fenomenoak itzalean utzi ditu beste euskal ziklista asko. Talde horretatik kanpo euskal txirrindulari asko dago, eta maila bikaina erakusten ari dira. Aintzat hartu behar ditugu»

'Aiurri' (2006-07-07)



iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

**Osakidetza.** Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

**Diputazioak.** Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

**Laborategi teknikariak.** Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

**Liburutegi** laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetxetan. 943 313782.

**Administrari laguntzaileak.**

Anoeta, Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil, Mendaro...

udalekxetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

**Peoiak,** garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaituz: 943 313782.

**Haur zaintzaileak,** hezitzaileak.

Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

**Peoiak.** Udalekxetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

**Gidariak.** Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

TOLOSA ▶

**Pistola baten erreplika eramateagatik atxilotuta**

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak J.F. S. T. 56 urteko gizona zuten tolosarra atxilotu zuen herenegun, 22:30ean, Tolosan, «agintaritzaren agenteen aurkako atentatu-saiatze delitua egotzita». Ertzaintzaren informazioaren arabera, akusatua itxurazko pistola bat mehatxuz erakutsi zien Lizardi Poeta Plazako balkoi batean zeuden lagun batzuei. Haiek deitu zieten Tolosako ertzainei.

Tokira iritsi eta susmagarria identifikatzerakoan «pistola baten ipurtondoa ikusi» zuten haren poltsikoan, eta besoak altxatzeko eskatzerakoan «oldartu» egin zitzaizkien. Gero, benetako Smith & Wesson pistola baten erreplika zeramala egiaztatu zuten agenteek, baina bolak jaurtizko plastikozko pistola omen zen. «Horrelako pistolak edukitzea edo bide publikoan erakustea debekatuta dago, benetakoekin duten antzagatik».

LEITZA ▶ POLITIKA

**Jose Jabier Mujika gogoan izan dute UPNko alderdikideek**

«Nafarra, euskalduna eta espainiarra sentitzeagatik» hil zutela adierazi zuen Miguel Sanz Nafarroako presidentek

ERREDAKZIOA

UPNko herriko eta herrialdeko zuzendaritzako kideak bertan zirela, ostiral arratsaldean egin zuten Jose Jabier Mujika leitzararren oroimenezko ekitaldia, duela bost urte ETAK atentatuz hil zuten leku berean.

Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko eta UPNko lehendakaria, gobernuko hainbat kontseilari (Catalan eta Kutz, esate baterako), Espainiako ejerzituko zenbait mando eta herrian bertako alderdikideek parte hartu zuten, besteak beste, Mujikaren sendiarekin batera. 150 bat lagun elkartu ziren ekitaldian. Mujikaren oroimenez otoiitz eginez hasi zuten elkarretaratzea. Eta, duela bost urte ez ezik egun ere Leitzako



Mujikaren senideak, Sanz eta Catalan ondoan dituztela. IMANOL GARCIA

Udaleko UPNko zinegotzi den Zestauk hainbat bertso eskaini zituen, bere kidearen oroimenezko hitzak kantatuz. Senideei lore sorta eman zieten, gero Mujikaren oroigarrian jarri zutelarik.

Herriko kideek ez ezik, Miguel Sanz UPNko lehendakariak ere oroimenezko hitzak izan zituen, eta Mujika «UPN

babesten dituen balioak defendatzeagatik» eta «aldi berean nafarra, euskalduna eta espainiarra sentitzeagatik erahil» zutela adierazi zuen. Prozesuak prozesu, urtero bilatzen jarraituko dutela ere baieztatu zuen.

Han bildutakoak, ondoren, Mujikaren oroimenezko meza entzutera joan ziren.

TOLOSA ▶

**Ibarrako piperra izan da eguneko protagonista**

Erosleak azokara lehen orduetan joatea eragin du beroak; eskaintza ez da hain zabala izan

PABLO ALBERDI

Udako hilabeteetan beroak jendea azokara lehenago joatera bultzatzen du, lehendabiziko orduetan erosketak egin eta gero hondartzaz, mendiaz edo aisialdiko beste edozein aukeraz gozatu ahal izateko. Eta atzo ere halaxe izan zen. Gainera, saltzaileek badakite eguraldi ona egiten duenean jende gutxiago izaten dela azokan, eta horregatik produktuaren eskaintza ez da hain handia izaten.

Dena den, Ibarrako piper aukera handia egon zen, eta asko saldu zen (5-6 euro). Zantzarik gabe, eguneko protagonista izan zen, bi aste falta arren bere onenean egoteko. Perretxiku eskaintza, aldiz, eskasa izan zen.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
<b>Berdura plaza</b>		
Xarbota	4,00	6,00
Surfinia	2,20	2,40

<b>Bertako produktuak</b>		
Tomatea	2,50	4,00
Tolosako babarr.	8,00	12,00

<b>Produktu ekologikoak</b>		
Arroza	1,90	2,00
Tipula	1,75	3,00

**Pasaten den egun bakoitzeko, errepikatuko ez den eskaintza bat**

**PortAventura 220€**

**Gran Canaria 843€**

**Salou 250€**

**Benidorm 350€**

**Marbella 65€**

**Tenerife 212€**

www.viajeseroski.es

**EROSKI bidaiak**

merzei dazuz

**EUSKAL JAIA BILLABONA 2006**

Uztailak 29 Larunbata

18:30etan Sagardo dasturera iritsi eta laguntza ematen

19:00etan ERROMERIA, Aizolazaren Anaiak & Juan Mari Beltran

21:00etan Aban herriko plaza: Zikloa Jaua

22:00etan ERROMERIA, Tapa eta Leturia

Garaiako euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu

Ziklo jantzerako txartelak saigai ondoko lekuetan (20€)

**Billabonako Plazan**

**OLATZ INMOBILIARIA**

**ASTEASU:** Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pza.

**IRURA:** Pisu ikusgarria. 125 m2 terrazarekin eta garajea. Urbanizazio pribatua eta frontoia. 53.000.000 pza.

**TOLOSA:** 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa.

**VILLABONA:** 2 logela. Kalitatezko materialekin. Berogailua eta igogailua. Aparta. 44.000.00 pza.

**VILLABONA:** 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pza.

**VILLABONA:** Apartamentua. Eraikuntza berrikoa, aparta.

**ZIZURKIL:** Etxe itsatsia lursailarekin ertzean. Aparta.

**Errota 2 - Villabona**

**Olatzinmo@euskalnet.net**

**943 243 118 - 635 706 728**

ALEGIA ▶ KARMEN JAIK



Ostolaza harri-jasotzailea esfortzu betean; hurrek gozatu zuten arkuarekin geziak jaurtikitzen; sagardoa zein txakolina erraz edan zuten alegiarrek, beroak lagunduta. I. GARCIA

# Jan, edan eta segi festan

Jende ugari, atzo, eguerdiko sagardo eta txakolin dastaketan eta arratsaldeko I. Txintxarri Sarian

IMANOL GARCIA

Jende ugari bildu zen atzo Alegiko plazara. Giroak laguntzen zuen eztarria bustitzera. Eta sabalak, likidoa iritsi orduko, mokadutxo hartzea agintzen zuen. Eztarria eta sabela lasai uzteko moduko menua izan zen, azken 18 urteetan bezala, herriko enparantzan: txakolina eta sagardoa (300 botila baino gehiago), sardina errea eta txorizo egosia (80 kilo guztira). Gazteak zein helduak hara bildu ziren eta Loatzo musika eskolakoek trikiti doinuek girotu zuten eguerdia.

Garai horretan ere, herriko gaztetxoak geziak jaurtikitzen ibili ziren. Gurasoen begirada bekaiztiaren pean, arkuaren tentsu eta animalia itxurako diana bolumetrikoak, globoak eta diana borobilak asmatzen saiatzen ziren.

Arratsaldeko ekitaldi nagusienetakoa I. Txintxarri Saria izan zen. Larraitz auzoko plazan elkartu ziren lau harri-jasotzaile ezagun: Izeta II.a, Izeta III.a, Ostolaza eta Aimar Irigoien. Izeta II.ak eraman zuen txapela. Guztira, 75 jasoaldi eman zizkion ibilitako hiru harrirei, guztiak 125 kilokoak: zilindrikoa, kubikoa eta borobila. Jende beteta zegoen torneoaren lekua, ikusmina sortu baitzuen lehiaketak, eta lau harri-jasotzaileek erakustaldi ederra eman zuten.



Jateko nahikoa izan zuten herriko plazara inguratu zirenek. I. GARCIA

**MARITXU**  
JAHARIDENDA

Ondo pasa jaietan!

**ISKIÑA**  
TABERNA

Goizean Sald  
Gauetan martxa!  
INTERNET

San Juan, 59 ALEGIA  
Tif.: 943653097

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmantatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 zerbakira.  
**Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean. Lanegun osorako. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 677 32 99 34.  
**Landetxea.** Uztail erditik abuztu

bukaerarteko landetxe batean lan egiteko pertsona bat behar da, autoarekin. 10:00etatik 13:30etara. Ondo ordaindua. Deitu 943 65 20 03 zenbakira.

**SALGAI**  
**Pisua.** Leitzan, 100m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuak deitu 699 46 13 65 telefono zenbakira.

**ALEGIKO ZAHARREN EGOITZA EDARITEGIA**

Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!

Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

AGENDA 21 ▶

# Hirigintza orekatua

Ernioalde 21 Udaltaldeak eginiko diagnostikoan hirigintza aztertu dute; biztanleriaren hazkundeak eragindako beharrak, arau subsidiarioen berrikuspena eta etxebizitza politika dira puntu nagusienak

## ERREDAKZIOA

Pasa den hilean aurkeztu zuten jendaurrean Ernioalde 21 Udaltaldeko alkateek zazpi udalerrietan egindako diagnostikoa. Hala, Adunan, Anoetan, Asteasun, Hernialden, Iruan, Villabonan eta Zizurkilen hainbat arlo izan dituzte aztergai, eta horietatik garrantzi gehien duenetakoa da hirigintza.

Azkenaldian, komunikabideetan oihartzun handia izaten ari den gaia bihurtu da hirigintza, nahiz eta kasu askotan baikorregiak ez diren albisteak direla medio izan, besteak beste, Marbellako urbanizazioekin erlazioaturiko iruzurrak, espekulazioak, babestutako lur-

zoruetako birkalifikazio nahiz okupazioak, eta abar luze bat. «Inongo ardurarik gabe porlanaz eta adreiluz betetako hiriak eraikitzen aritu dira kostako lehenengo lerroetan, kasik ibai eta erreken gainean, irisgarritasun irizpideak ahaztuta, genero perspektibarik gabe, motordun ibilgailuen erabilerrari erraztasun guztiak emanez...», kritikatu dute Udaltaldekoek.

Baina hirigintza kontzeptua haratago doan kontzeptu bat dela aldarrikatu dute, iraunkortasun irizpideekin estuki lotuta aurkitzen dena, eta horregatik gizarte, ekonomia eta ingurumen arloak aintzat hartu beharrekoak dira hirigintza lantzeko orduan. Nahiz eta Er-

nioaldeko Udaltaldeko herriaren egoera hirigintzaren ikuspuntutik «onargarria» izan, Tokiko Agenda 21 prozesu honetan pixkanaka herrien zentzuzko antolamendua sustatzen duten ideia berritzaileak barneratzen ari direla ikusi dute.

## Biztanleriaren hazkundera

Ernioaldeko Udaltaldeko udalerrietan biztanleriaren hazkunde nabarmena ematea edota igoera bat ematea aurreikusten dute. «Populazioaren handitzeak behar zuzen batzuk eragiten ditu eta hauei modu orekatu batean erantzuteko hirigintza benetan tresna garrantzitsua bilakatu da».

Diagnostikoetan hirigintzarekin erlazioatutako hainbat aspektu azpimarratu dituzte, hala nola, «etxebizitza bat lortzeko zailtasunak, kultur, aisialdirako edota kirol egiteko azpiegiturak osatu beharra, gune berdeen falta, oinarriko zerbitzuetan gabeziak, natura gune babestuak, lurzorua erabilerarekin egokienarekin erlazioatutako eztabaidak (industriarako lurzorua...), herriari bizitasuna emateko neurriak...». Egoera honen aurrean, gai hauei guztiei «taxuzko erantzun bat» eman ahal izateko udalen eskuetan berebiziko garrantzia duen arau subsidiarioen berrikuspena aurkitzen da, «nahiz eta kasu batzuetan

udalaz gaindiko erakundeek ezarritako betekizunak zein makroproiektuak direla medio mugari ugariarekin topo egin».

## Arauen berrikuspena

Dena dela, momentu honetan Udaltaldeko partaideen artean udal planeamenduaren berrikuspena idatzia edota idazten ari diren udalerririk Irua, Aduna, Asteasu, Zizurkil eta Villabona dira. Hernialde eta Anoetaren kasuan, berriz, hastear aurkitzen dira.

Arau subsidiarioen berrikuspenarekin udalen helburua «herri bizi, atsegin eta txukun bat lortzea da, beti ere herri bakoitzak dituen beharrei erantzun egokia emanez eta

## OREKA

Populazioaren hazkundeak eragiten dituen beharrei orekaz erantzuteko, hirigintza tresna garrantzitsua da

## UDAL PLANEAMENDUA

Iruak, Adunak, Asteasuk, Zizurkilek eta Villabonak arauen berrikuspena idatzia dute edo idazten ari dira

## PARTE-HARTZEA


Udal plangintzak osatzeko garaian herritarren parte-hartzea sustatzea garrantzitsua dela ikusi dute

## HIRIGINTZA LANDU

Gizartea, ekonomia eta ingurumen arloak aintzat hartu beharrekoak dira hirigintza lantzerakoan

## TOKIKO AGENDA 21

Agenda 21 prozesuan, herrien zentzuzko antolamendua sustatzen duten ideiak barneratzen ari direla ikusi dute



Zizurkilgo Ubare auzoko eraberrikuntzaren inguruan antolatutako tailerretan 80 herritar inguruk hartu dute parte. Ekarpenekin aurreproiektua lantzen ari dira. IMANOL GARCIA / HITZA

herriko nortasuna mantenduz». Azken finean, herritarrak bizi diren ingurunearekin identifikatuta eta gustura sentiaraztea bilatzen dute, eta era berean, herriko bizitzan parte-hartze aktiboa eta eraikitzailea izan dezaten.

Horregatik, udal plangintza hauek osatzeko garaian herritarren parte-hartzea sustatzea garrantzitsua dela ikusi dute udal planeamendua aberastu ahal izateko eta herritarren benetako beharrei hobeto egokitu ahal izateko. «Zentzu honean, udaltaldeko adibide bezala, 2005-2006an Zizurkilen Ubare auzoan eraberritze edota berrikuntzaren inguruan antolatutako parte-hartze tailerrek aipatu daitezke, 80 pertsona inguru gerturatu eta orain ondorioekin aurreproiektua lantzen ari direna, hain zuzen».

**Lotarako herri bilakatzea**

Hala eta guztiz ere, Ernioaldeko biztanleen artean lotarako herri bilakatzea saihestearekin erlazionatutako aipamen eta kezka ugari jaso dituzte; badi-rudi, arestian aipatutako hazkundeak («herriko biztanleen arteko harremanak hozten ari dituela, eskualde honetako herriko bizimodu eta errealitate-rik urrunduz»).

Udalen egitasmoen artean, joera orokor honi buelta ematen saiatzeko, ekimen ugari martxan jartzea dago, eta horien artean azpimarragarrietako bat udalen etxebizitza politika izan daiteke. «Politika hauen bidez, Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak sustatzea bilatzen ari dira Udaltaldeko udalak, herri barneko eskari garrantzitsuari erantzuteko intentzioarekin». Etxebizitzekin jarraituz, etxeak hirigunean egin beharra garbi azaldu da, eta posible izanez gero dagoeneko artifizializaturako eremu batean, hau da, aurretik hiritartutako lurzorubatean. «Honen xedea herri trinko eta herritarren arteko gertutasuna bultzatzea da, honen zerbitzu, mugikortasun, komunikazio eta beste hainbat



Iruran arau subsidiarioen berrikusketa egiten ari dira. Argazkian ikusten den lur eremua, txostenean Zabalgunere deritzona, hain zuzen ere, etxebizitzak egiteko lur eremu bihurtu nahi dute. IMANOL GARCIA

**DATU GARRANTZITSUAK ▶**

**Hirigintza.**

- ▶ Biztanleriaren hazkunde nabarmena nabari da.
- ▶ Etxebizitza lortzeko zailtasunak, azpiegiturak osatu beharra, gune berdeen falta, oinarriko zerbitzueta gabeziak, natura gune babestuak, herriari bizitasuna emateko neurriak... azpimarratu dituzte hirigintzarekin lotuta.
- ▶ Puntu horiei erantzun egokia emateko arau subsidiarioen berrikuspenak garrantzi handia du.

**Arauen berrikuspenaren helburua.**

- ▶ Herri bizi, atsegina eta txukun bat lortzea, beharrei erantzun egokia emanez eta herriko nortasuna mantenduz.
- ▶ Udal planeamendua

aberasteko eta herritarren benetako beharrei hobeto egokitzeko herritarren parte-hartzea sustatzea garrantzitsua da udal plangintzak osatzeko.

**Herritarren kezak.**

- ▶ Lotarako herriak bilakatzea.
- ▶ Biztanleriaren hazkundeak herritarren arteko harremanak hozten ditu.
- ▶ Eskualdeko herrietako bizimodua eta errealitatea urruntzea dakar biztanleriaren hazkundeak.

**Etxebizitza politika.**

- ▶ Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta etxebizitza tasatuak sustatzea lortu nahi dute.
- ▶ Etxeak hirigunean burutzea, eta posible izanez gero aurretik hiritartutako lurzorubatean.

- ▶ Herri trinkoa sortzea eta herritarren arteko gertutasuna bilatzea bultzatzen du.
- ▶ Oinezkoentzako hiriguneak egokitu eta kale nagusiak urbanoago bihurtzea bilatu nahi dute.

**Iraunkortasun irizpideak.**

- ▶ Hurrengo belaunaldiak egun gozaten dugun bizimoduaz gozatu ahal izateko, ezinbestekoa da iraunkortasun irizpideak dituen hirigintzaren aldeko benetako apustua.

aspektutan eragiten dituen abantaila guztiekin».

Bestetik, «oinekoari lehen-tasuna ematen dioten espazioa sortzen edota moldatzeko ekintza ugari aurrera eraman edo eramango dira»; esaterako, oinezkoentzako hiriguneak egokituz eta kale nagusiak urbanoagoak bihurtuz.

Iraunkortasun irizpideak dituen hirigintzaren aldeko benetako apustua egin beharra dagoela «ezinbestekotzat» jo dute Udaltaldekoek, «hurrengo belaunaldiak egun gozaten dugun baliabide naturalez eta bizimoduotaz gozatzea nahi izanez gero, behintzat».

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**  
2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

**ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!**

**HELBIDERATU ZURE KUOTA**

**EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTEKO AUKERA**

**egunean 0,18 zentimoren truke buzoian**

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 16a, igandea ▶ IV. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Aliza, Alza, Arretxola, Areso, Areso, Areso, Balmor, Behariza, Berrog, Berro, Ekain, Gorta, Ibaña, Ibañeta, Irura, Leaburu, Leiza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zuzuki

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritza, Kultura Saila



GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

25

hotzena

22

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Alto.** Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai daude Arandia jatetxean, 18 eurotan.

**Tolosa.** Odol-ematea. Bihar, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.

**Tolosa.** Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.

**Tolosa.** Andorrara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**Tolosa.** Oargi elkarteak Picos de Europa mendira irteera antolatu du hilaren 22tik 25era. Interesatuak 637 83 03 80 telefono zenbakira deitu.

**Villabona.** Garagardo Azoka, 18:00etatik 01:00etara, Txerminen.

**Villabona.** XXVIII. Usakume Tiraketa Behar-Zana Saria. 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara, Arratzaingo Izarre zelaian.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Miren Ortegaren margolanak, Jubilatuen tabernan.

**Hernalde.** Gregorio Lopezaren lanak, Ostatuan ikusgai.

**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.

**Tolosa.** Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errotan.

**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olenzo jatetxean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

**Areso.** Goizueta, F. Loidi ebhea. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

#### Bihar

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta irizien erantzukizunik.

# Gazte eguna, bero-bero!

**LIZARTZA ▶** Bosgarren urtez egin dute, aurten egun osoko festa gainera, otorduak tartean izanik, Isk-and-bila-rekin hasitakoa Nekin-ekin bukatuz



Musikari gazteboak ere lanean aritu ziren. J. ASTIBIA



50 lagun inguru bildu ziren bazkaira. J. ASTIBIA



Isk&bila txaranga gaztetxetik atera eta herri guztian barrena ibili zen giroa alaituz. JAIONE ASTIBIA

### JAIONE ASTIBIA

**E**gun osoko festa izan zuten atzo Lizartzan gazteek antolatuta: V. Gazte Eguna egin zuten, aurten egun betekoa. Eta, halaxe egokitu ere egin zen, betea, osatua, adiskidetasuneko eta beroa.

Gaztetxera bildu ziren eguerdian, hamaiketako egin eta kalejirari ekiteko. Itzalean, fresko-fresko, mokadutxoak janez indarrak hartuta, Isk&(and)-bila txaranga jo eta su aritu zen gelditu gabe, batetik bestera, eguerdiarte guztian, beraren arrimoan zihoaztenak eta herriko txokoak musikaz alaituz.

Udaletxeko arkupetan bazkaria ere egin zuten 50 bat lagunek. Hemen, kantu artean, herriko preso eta errefuxiatuen senitartekoei oroirgarriak banatu zizkieten.

Iluntze parterako, patata tortila lehiaketa zegoen iragarrita. Bertan prestatutako arrautzopilik goxoekin eta beste, Gaztetxe atarian afaria eginda, Nekin taldeak kontzertua zuen ematekoa, gero.


Gazteentzat nahiz helduxea-goentzat ere, girorik ez zen falta, behinik behin, Gazte Egunean.

## AGURRAK ▶



### URTE ASKOAN

A zer koadrila Odriozola-Iratorzarrek. Urko, Alain, Unax, eta ongi etorri, Aitor.



### ZORIONAK

Enaitz (Alegia).  
Ondo pasa, aitona eta amonaren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea